

# Arte proiektuak ekoizteko modu berriak hausnargai dira Artelekun

'PowerPoint Revolucion' lantegiak urria amaitu bitartean iraungo du Donostian

Gorka Erosarbe / Donostia

Hilaren 2an hasi eta hila amaitu bitartean mar-tan izango da Artelekun (Donostia) *PowerPoint Revolucion* lantegia. Orotara 10-15 parte-hartzaile izango dira ekimen horretan, Asier Perez Gonzalez artistak koordinatuta, eta arteko ekoizpen berrien inguruan gogoeta egitea da xede nagusia.

**ARTISTA.** kritikari, *curator*, nahiz arte produkzioan parte hartzen duten gainerakoel zuzendutako hausnarketa eta produkzio lantegia da *PowerPoint Revolucion*.

Asier Perez Gonzalez artista eta EHUko Arte Ederretako irakaslea arduratu da lantegia koordinatzeaz. Hark eman ziltuen ekimenaren maniaren eta xedeen herr: «Informazioaren aroan izaien art diren kultur ekoizpenak aztertuko ditugu: globalizazioa eta estandarizazioa, besteak beste. Ikuskizuna eta ikusgarritasuna, ikusleak eta ekonomia bezalako kontzeptuak oinarritzkoak izango dira ekoizpenen inguruan hausnarketa bultzatzeko». Asier Perezen hitzen analisi horiek, arte objektuaren, artearen tokiaten, identifikazioaren eta presentazioaren desmaterializazioa aztertzeko, hots, ikusgarritasunaz eta eskuragarritasunaz jarduteko balloko dute.

Artelékuko zuzendari Santi Erasok azken urteetan alda-



PowerPoint Revolucion lantegiko antolatzaileak, atzo Donostian emandako prentissurrekoan.

## ASIER PEREZ

«Informazioaren aroan izaien art diren ekoizpenak aztertuko ditugu, besteak beste, globalizazioa, estandarizazioa...»

keta nabarmen bat izan dela azpimarratu zuen: «13 urte-tako ibilbidean Artelekuko proiektua arras loturik egon da bere arkitekturarekin. Azken urteetan, baina, arte objektuaren inguruko planteamendu berriek eragin di, beste proiektu batzuekin

## SANTI ERASO

«Arte objektuaren planteamendu berriek beste proiektu batzuekin lan egitera bultzatu gaituzte»

batera lan egin behar izan dugu gure erakinetik aterata.

## Hiru gonbidatu berezi

Arte kontzeptu berri baten erakusgarri gisa, nazioarteko hiru gonbidatu berezi ekarri-

ko ditu Artelekuk Consoni etxearen laguntzaz. Hiru artista horiek beren azken lanak paratuko dituzte Artelekun eta, gainera, hitzaldi batzuk eskainiko dituzte. Halaber, lantegiko parte-hartzaileekin harreman zuzena izango dute: «Gogoeta eta ekinizaa batera izatea nahikoa», adierazi zuen Perezek.

Andrea Fraser artista estatubatuarrek hilaren 17an eskainiko du bere hitzaldia, 17:00etan. Heinrich Sachs alemaniarrek hilaren 19an eskainiko du, eta Atelier van Lieshout Holandako enpresako kideek, azkenik, hilaren 24an.

# De Pablosen erretratuak ikusi ahal dira Gotorlekuan

Artista nafarrak Bolborategian paratu du erakusketa

Errédakzioa / Irutia

**DIEGO DE PABLOS** margolari iruindar gazteak Iruñeko Bolborategian zintzilikatu ditu azken urteolan egindako koadroak. Udalaren eskutik, Bakarrik egiten duen lehen erakusketa honetarako, 1993. urteik orain arte egindako erretratuak aukeratu ditu pintoreak. Egilea bera eta bere inguru hurbileko laginak dira koadroetako protagonistak.

Glazklaren ahultasima eta denboraren eragina islatzen ditu Diego De Pablosek bere lanen bidez. Bolborategiko erakusketak agerian uzten duenez, Erakusketako ohretan, halaber, egileak Juan Jose Akerreta margolariari dion nirespena ageri da, eta hura da lan bateko protagonista. Akerreta margolariarekin egon zen erakusketaren aurkezpenean, eta De Pablosen lanen indarra nabarmendu zuen.



Diego de Pablos, bere obra baten aurrean.

JOSE L. MAITE